



BEZERO KANALA

AquaSave proiektuan, gure helburu nagusietako bat da bezeroengana modu eraginkorrean heltzea eta produktua non eta nola eskaintzen dugun argi azaltzea. Horregatik, hemen aurkezten dugu erabiliko ditugun kanal nagusien ikuspegi orokorra. Kanal hauek aukera emango digute bai jende gehiagorengana iristeko, bai informazioa modu argian zabaltzeko, eta azken batean, AquaSave-ren erabilera eta abantailak ezagutarazteko.

AquaSave-ren kanal bezeroak honela izango lirateke: Jendea gure produktura webgunearen bidez iritsiko da, eta baita Amazon eta sare sozialetatik ere, adibidez Instagram, TikTok edo Facebook, non bideoak eta iragarkiak jarriko ditugun.

Gainera, dendetan ere salduko dugu, etxeetarako teknologia eta materialak saltzen dituzten tokietan. Instalazio profesionalekin ere egingo dugu lan, jendeak erosi eta bere etxean erraz jarri ahal izateko. Bezeroekin harremana aplikazioaren bidez mantenduko dugu, mugikorretik kontsumoa ikus dezaten.

Eta azkenik, Instagram edo TikTok bezalako kanalak erabiliko ditugu jendeari erakusteko nola funtzionatzen duen eta zergatik den ona ura aurrezteko.



WEBGUNEAK:

Gure webgunea izango da informazio iturri nagusietako bat. Bertan bezeroek ikusiko dute:

- Produktuaren azalpen osoa,
- Nola instalatzen den,
- Gure aplikazioaren funtzionamendua,
- AquaSaveri buruzko informazio fidagarri eta eguneratua.



SARE SOZIALAK:

Instagram-en:

- Produktuaren argazki eta bideo argiak igotzea.
- Nola instalatzen den eta nola funtzionatzen duen erakustea.
- Bezeroen esperientziak eta emaitzak partekatzea.
- Eskaintza eta berrietasunak iragartzea.



TikTok-en:

- Bideo labur eta dinamikoak, azalpen errazekin.
- AquaSave nola erabiltzen den modu praktikoan erakustea.
- Ura aurrezteari buruzko trikimailuak eta demostratzeko bideoak.
- Eduki dibertigarri eta gazteengana iristeko modukoak sortzea